



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2016/09/11

700 pertsona inguru igon dira Kolitzara, ohikoa dan Batzarretarako deian parte hartzeko

Adarrotsa barriro entzun da Enkarterriko tontor enblematikoan. Batzarretarako dei tradizionalen parte hartzeko gogoak 700 pertsona inguru bultzatu ditu gaur Kolitzako tontorrera, Deiadar Mendien Egunaren hamahirugarren edizinoan parte hartzeko. Batzar Nagusiek jardunaldi hori tradizional bilakatu dabe daborduko mendiaren eta Bizkaiko tradizioen zaleentzat.

Batzar Nagusiek, Balmaseda Mendi Taldeagaz batera antolatu daben mendiko martxea goizeko 09:30ean abiau da Balmasedako San Seberino plazatik. Itsasoaren mailaren gainetik 147 metrora dagon puntu horretatik urtenda, partaideak 11:30etik aurrera joan dira Kolitzak dituan 879 metroetara ailegetan, taldeetan banatuta, puntu bien artean dagozan sei kilometroak egin ostean. Eguerdiko hamabietan, tontorrean, Batzar Nagusietarako ohiko deia egin da, legendak esaten dauenez Erdi Aroan egiten zan moduan.

Bizkaiko Batzar Nagusiek 2004. urtetik antolatzen dabe jardunaldi hori, garai modernoan erakundea barriro be indarrean jarri zanetik 25. urteurrena bete zanetik. Urte horretatik, adin guztietako bizkaitarrek adarrotsa entzun ahal izan dabe, bost deiadar mendietako (Gorbeia, Koltza, Sollube, Oiz edo Ganekogorta) batetik, Antonio Trueba moduko lurraldeko kronistek kontetan dabenez XIV. eta XV. gizaldietan Gernikako Arbolaren azpian batzeko egiten zan antxinako deia gogoratuz.

Tontorrean, ohorezko aurrekuaren ostean, Balmaseda Mendi Taldeko ordezkariak, datorren urtean egingo dan Solluberako igoera antolatuko dauen taldeko ordezkariari emon deutso adar ofiziala. Batzar Nagusiak ordezkatzu Ana Otadui presidentea joan da, eta beragaz batera Bizkaiko beste ordezkari batzuk, Jon Andoni Atutxa, José Angel Basauri, Kontxi Claver, Irene Edesa, Celia Gómez eta Aitor Ibarra batzarkideak, eta Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Foru Diputatua, Elena Unzueta, eta el Balmasedako alkatea, Alvaro Parro, besteak beste.

Adarrotsaren ostean, Otadui eskerrak emon deutsez bertara gerturatutakoei, eta gogoratu dau Batzar Nagusiek, Europa osoko lehenengo erakunde demokratikoetako batek, 2004an emon eutsiela formea jai herrikoi horri, esaten danez Bizkaiko ordezkariak deitzeko antxinako modua zana gogoratzeko asmoz. Jaiak Kolitzako aterpetxearen ondoan jarraitu dau gero, euskal musikeagaz eta dantzagaz, Balmasedako Eguzki Dantza Taldeagaz. Eta musikeagaz batera, Amigos de la Putxera Alkarte Gastronomikoak lekuan bertan prestau dituan eta eskualdean tipikoak diran putxerak euki doguz.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

11/09/2016

Unas 700 personas coronan el Kolitza para participar en la tradicional llamada a Juntas

El sonido de los cuernos ha vuelto a sonar en la emblemática cumbre de Enkarterri. Las ganas de participar en la tradicional llamada a Juntas han animado hoy a unas 700 personas a subir a la cima del Kolitza para tomar parte en la decimotercera edición del Día de los Montes Bocineros, una jornada que las Juntas Generales de Bizkaia han convertido ya en una marcha clásica para los amantes a la montaña y las tradiciones vizcaínas.

La marcha montañera, organizada por las Juntas Generales en colaboración con el club de montaña Balmaseda Mendi Taldea, ha partido a las 9:30 horas desde la plaza San Severino de Balmaseda. Desde este punto a 147 metros sobre el nivel del mar, los participantes han ido alcanzado los 879 metros del Kolitza a partir de las 11:30 horas divididos en grupos, tras recorrer los seis kilómetros que separan ambos puntos. Ya en la cumbre, se ha realizado a las doce del mediodía la tradicional llamada a las Juntas Generales, como dice la leyenda se hacía en tiempos de la Edad Media.

Las Juntas Generales de Bizkaia organizan esta jornada desde el año 2004, coincidiendo con el 25 aniversario del restablecimiento de esta institución en la época moderna. Desde ese año, miles de vizcaínos y vizcaínas de todas las edades han podido oír, desde alguna de las cinco cimas bocineras (Gorbeia, Kolitza, Sollube, Oiz o Ganekogorta), el sonido del cuerno, emulando la llamada primitiva que según cronistas del territorio como Antonio Trueba afirmaban que era una de las maneras utilizadas en los siglos XIV y XV para convocar a las reuniones que se llevaban a cabo bajo el Árbol de Gernika.

En la cumbre del Kolitza, tras un auresku de honor, el representante del club Balmaseda Mendi Taldea ha hecho entrega del cuerno oficial, al representante del club organizador de la subida del próximo año en el Sollube. En representación de las Juntas Generales ha acudido su presidenta, Ana Otadui, que ha estado arropada por otros representantes de Bizkaia como los apoderados/as Jon Andoni Atutxa, José Angel Basauri, Kontxi Claver, Irene Edesa, Celia Gómez y Aitor Ibarra, y la diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, o el alcalde de Balmaseda, Alvaro Parro, entre otros.

Tras el tañir del cuerno, Otadui ha dado las gracias a los asistentes y ha recordado que las Juntas Generales, una de las primeras instituciones democráticas europeas, dieron forma a esta fiesta popular en el año 2004 con la idea de recordar la que dicen fue una de las viejas maneras de convocar a los representantes de Bizkaia. La fiesta ha seguido después en las campas situadas junto al refugio del Kolitza en donde no ha faltado la música y las danzas vascas a cargo del grupo local Balmasedako Eguzki Dantza Taldea,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

acompañado de unas pucheras típicas de la comarca elaboradas “in situ” por la Asociación Gastronómica Amigos de la Putxera.